

BORROKAZ ASKE BIZIZ...

Itzubaltzeta-Erromon, iragan urteko balantze errepresiboa honakoa da:

- “Itzubaltzeta I” gaztetxearen desalojo bortitza
- Getxo IV ikastetxeko zuzendaritzaren inposaketa amaigabeak
- Martin Etxegarai eta “Kitxu” auzolagunak presondegi espainoletan, zio politikoak medio
- Margoketak egiteagatik herriko bi gazte epaituak
- Faxisten aurkako ekintzetan parte hartzeagatik, isunen kopuru izugarria
- Euskararen bazterketa etengabea
- Metro Bilbao-ko seguraten jarrera erasokorra eta arriskutsua
- Jazarpen polizialaren areagotzea: Ertzaintza, Nazionalak, Pikoloak, ...
- Etabar ...

Guzti honen aurrean, **SEGI**-tik elkarlana eta harremanak egonkortzea oso garrantzitsua izango dela uste dugu, toki guztietan: ikastetxean, lantegian, tabernetan, gaztetxean, eta nola ez, kalean. Gure herriko kaleetan, Itzubaltzetan.

Eraso guzti hauei erantzuteko modu eraginkorrena inposaturiko bizi-moldearekin apurtzea da, **ASKATZEA** eta **BURUASKIA IZATEA**. Ez baita ulertzen herri askerik gizaki askerik gabe.

<<Borrokaz aske biziz... independentzia!>> ez da lelo hutsa. Independentzia hitza, bi zentzutan ulertzen dugulako: bata, Euskal Herriaren independentzia lurraldetasunari dagokionean, Espainia eta Frantziatik askatuko gaituen independentzia, alegia, dugu.

Independentzia hitzaren bigarren zentzua, pertsona independenteak izan behar dugula aldarrikatzean datza. Nola liteke bestela Euskal Herri independente batean bizitzea, aldezturik pertsona askeak ez bagina?

Antola zaitez dagokizun esparruan, askatasunaren bila antolaturik borrokatzean baino ez baituzu topatuko zure buruaskitasuna, zure **INDEPENDENTZIA!**

INDEPENDENTZIA!



BORROKAZ ASKE BIZIZ...

<<borrokaz aske biziz... independentzia!>> astea Itzubaltzeta-Erromon!

-Otsailaren 15ean, asteazkena

<<FEMINISMOAZ ASKE BIZIZ... INDEPENDENTZIA!>> eguna

19:30etan hitzaldia Itzubaltzeta gaztetxean
Bilgune Feministaren eskutik

-Otsailaren 16an, osteguna

<<EREPRESIOAREN GAINETIK BORROKAZ ASKE BIZIZ...
INDEPENDENTZIA!>> eguna

-Otsailaren 17an, ostirala

<<EUSKARAZ ETA KULTURAZ ASKE BIZIZ...
INDEPENDENTZIA!>> eguna

21:30etan BERTSO AFARIA
Itzubaltzeta gaztetxean AMAIA AGIRRE
eta XABIER PAIA bertsolariekin (5€)

-Otsailaren 20an, astelehena

<<AMA-LURRAREN DEFENTSAN BORROKAZ ASKE BIZIZ...
INDEPENDENTZIA!>> eguna

“PTP eta AHT, herriaren etsaiak” hitzaldia Itzubaltzeta
gaztetxean, 19:30etan, IÑAKI ANTIGÜEDADen eskutik

-Otsailaren 21ean, asteartea

<<IKASLE BORROKAZ ASKE BIZIZ... INDEPENDENTZIA!>> eguna

-Otsailaren 22an, asteazkena

<<LANGILE BORROKAZ ASKE BIZIZ... INDEPENDENTZIA!>> eguna

19:30etan “Prekarietate laborala”-ri buruzko
bideoemanaldia Itzubaltzeta gaztetxean

-Otsailaren 23an, osteguna

<<BORROKAZ ASKE BIZIZ...
INDEPENDENTZIA!>> eguna

19:30etan Xake enparantzan: Asteaz zehar herrian
egindako guztiaren laburpen-bideoemanaldia

SEGI

INDEPENDENTZIA!

SEGI